

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**62. zenbakia****Data 2008-04-02****9798 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****DONOSTIAKO UDALA****Udalaren Garapenerako Kooperazio eta Hezkuntzaren Kontseilu Aholkulariaren behin betiko onspena.****DONOSTIAKO UDALA****Idazkaritza Nagusia**

Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluaren Araudiaren behin betiko onspena.

Donostiako Udaltzarak, 2007ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran, Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluaren Araudia behin-behingo onartu zuen.

Hasierako onarpen horren iragarkia 2007ko urriaren 11an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, espedientea jendeaurrera ateraz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 30 laneguneko epean.

Halaber, iragarkia Udaleko Iragarki Oholean ikusgai egon zen epe berberean.

2007ko azaroaren 17an epea amaituta, alegazio-idazki bat aurkeztu zuen eta adierazitako alegazio batzuk Udaltzarak onartu egin zituen, 2008ko otsailaren 26an egindako bileran, Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluaren Araudia behin betikoz onartuz.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Emandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin betiko onartutako Gizarte Kontseiluaren Arautegi Organikoa argitara ematera goaz.

Donostia, 2008ko martxoaren 26a.—Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Donostiako Udaleko Behin Behingo Idazkaria.

(484) (3454)

Donostiako Udaleko garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzako aholku kontseiluaren araudia.

ZIOEN AZALPENA

Udalaren jardunbide egokirako ezinbestekoa da erakundeek interes orokorraren alde erabakiak hartzeko eta jarduteko gaitasuna edukitzea etengabe, betiere herritarren eskakizunak eta egoerak kontuan izanik.

Administrazioek beharrezkoa dute beren eskumeneko gaitan herritarren duten iritzia jakitea, gizarte-eskakizunei erantzun bat ematen ahalegintzeko. Eta halaber, beren erabaki eta jardueren erantzukizuna hartu behar dute haien aurrean. (Herritarren Partaidetzari Buruzko Arau Organikoaren Arrazoiaren Azalpenetik).

Nazioarteko desberdinkerien aurrean herritarren kontzientzia gero eta handiago dela-eta, Donostiako Udalak azken urteotan elkartasunezko zenbait ekimen egonkortasunez gauzatu izan du, bai garapenerako lankidetzeta nazioartekoaren arloan, bai garapenerako sentiberatasun eta hezkuntzarenean. Hein handi batean, ekimen hauek Gobernu Kanpoko Erakundearen (GKE) lankidetzaz gauzatu dira.

Elkarlaneko dinamika honen harira, 2003an Donostiako Udalak eta hirian diharduten elkarte sozialen ordezkaritza zabal batek elkarrekin ekin zioten garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzaz udalaren politikak behar lukeen esparru doktrinal eta formalaz gogoeta egiteari.

Holako gogoetan parte hartutako eragile politiko eta sozialen ustetan, udalak sustatutako garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzak Ipar-Hego harremanen eraldaketa estrukturala bultzatu behar du, planeta honetarako gizon-emakume guztientzako garapen gizatiar eta iraunkorraren ikuspegitik, betiere. Baina hau egia izango bada, behar-beharrezkoa da herritarrek, berariaz, aktiboki eta gero eta hobeki antolatutarik, parte har dezaten, bai Iparrean bai Hegoan. Gizarteak izan behar du eraldaketa sozialaren protagonista.

Planeamendu honek eskatzen du, besteak beste, garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzako udal politiketan

gizarte zibilari parte hartzen erraztuko dioten mekanismoen ezarpena. Helburu hau betetzearen sortzen da honako Udal Kontseilu hau.

Partaidetza ez da ulertu behar informazioaren transmisio huts gisa, ezta gai zehatz batzuei buruzko iritzi huts gisa ere. Sistema demokratikoaren oinarria den eskubidea praktikan jartzeko baliabide eraginkorra da partaidetza.

Pertsonentzat ez ezik, pertsonekin ere gobernatzea.

Halaber, Udalaren gainerako lan arloei ere eragiten dien estrategia baten baitan kokatzen da Donostiako Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Udal Kontseilua. Izan ere, «partaidetza, kontsulta eta eztabaidarako dinamikak» sendotzera jotzen du estrategia horrek, «udal kudeaketaren inguruko erabakiak hartzeko prozesuetan herritarren iritzia txertatzearen». Hortaz, Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Udal Kontseilua Udaleko Partaidetzako Kontseiluen sarearen baitan sartzen da, herritarrek parte hartzeko egitura desberdinen arteko harremanak artikulatu daitezkeen.

AURRETIAZKO TITULUA

1. artikulua. Konstituzioa.

Donostiako Udalak uste osoa du jardunbide egoki baten printzipioen baitan dagoela herritarren partaidetza aintzat hartzea Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza politika aurrera eramateko proiektu, programa eta jardueren definizio, programazio, jarraipen eta ebaluazio lanetan. Horren ondorioz, GGKEen Koordinakundeak, eragile sozialek eta udal teknikariek alde aurretik egindako hausnarketa eta lanekin bat etorritik, Herritarren Partaidetzari buruzko Araudiak ezarritakoaren babespean eta gaiaren inguruan udal politikaren jardunaren arabera, Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua eratzen da.

2. artikulua. Helburua eta Izaera.

Udalerrian Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren inguruko printzipioak eta jardunbidea bultzatuko dituen sektoreko partaidetza-organoa da Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua, betiere «giza garapen iraunkorraren» ikusmoldearen baitan. Ikusmolde horren arabera, pertsonen eskura dauden hautabideak, gaitasunak eta aukerak zabaltzera jotzen duen prozesua da garapena, honako hauek kontuan harturik:

— Gizakia da garapenaren erdigunea. Gizakia da, norbanako edo gizarte baten kide gisa dela ere, bere helburuak ezarriko dituen, askatasunen esparruan eta eskubide indibidual eta kolektiboaren ikuspegitik. Herriari, eta osatzen dituzten pertsonari, dagokie desio duten garapen eredua eta estrategia definitzea, eta herri eta pertsona horiek dira aldaketa prozesuari ekin behar dietenak, dituzten baliabide eta ahalmenetatik abiatuta, nazioarteko komunitatearekin babes eta estimuluekin. Garapenak, bada, partehartzailea eta endogenoa behar du.

— Aniztasuna. Giza garapena ez da prozesu bakarra ez lineala. Pertsonak, komunitateak eta herriek, zeinek bere ikuskerak kulturaletatik abiatuta, definitu behar dute beren garapen prozesua.

— Osotasuna. Garapena ez da hazkunde ekonomiko hutsa, bestelako aldeak (politikoak, sozialak, kulturalak, ingurumenekoak) ere baditu, eta horiek guztiak, aldagai ekonomikoa barne, kontuan harturik ezarriko ditu herri bakoitzak bere helburuak eta metodologia.

— Giza eskubideak. Nazioarteko komunitateak gizakiari ezin bortxatuzkotzat onartutako eskubideak, garapenerakoa barne, gauzatzeko obligazioan oinarritzen da Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren jardunbidea. Hala, bada, giza eskubide zibil, politiko, sozial, kultural eta hirugarren belaunaldikoen errespetua, defentsa eta sustapena dira edozein garapen-estrategiak indartu behar dituen abiapuntua zein helburua. Beraz, «giza eskubideen eta giza garapenaren aldeko mugimenduek tradizio eta estrategia desberdinak izan badituzte ere, aliantza zabalago batean baturik, elkarri kemen eta adore berriak ekartzen ahal dizkiote» (ikus GNBPeen Giza Garapenari buruzko Txostena).

— Genero ekitatea. «Giza garapenaren prozesua pertsona guztien aukerak zabaltzeko prozesua da, gizartearen zati batera mugatu gabe. Prozesu bera bidegabe eta baztertzaila ere bada emakume gehienak bere onuretatik kanpo bazter uzten baditu (ikus GNBPeen Giza Garapenari buruzko 1995eko Txostena). Genero ekitateak, giza garapenaren paradigma bere baitan daraman printzipioa izaki, hauxe bilatzen du: Arlo ekonomiko, politiko, sozial eta kulturaletan emakumeek eta gizonek berdintasunez bai baina sexu bakoitzaren ezaugarri eta egoerara moldatutako baldintzen arabera parte hartu ahal izatea.

— Iraunkortasuna. Giza garapenak iraunkortasun ekologikoak ezarritakoaren mugapean egon behar du. Garapenak nahitaezko baldintzat dauka belaunaldi bakoitzak dituen beharren ase eta gaitasun eta askatasunen zabalpena ez gertatzea hurrengo belaunaldien kaltetan.

Bestalde, Udal Kontseilu honen aburuz, Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzak berekin dakar Iparrean zein Hegoan parte hartzen duten eragileen arteko bazkidetzeta eta elkartruke solidarioa, elkarren ezagutza eta formazioa mendekotasun hierarkikorik gabe sustatuz. Era berean, garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza ekin-tzak elkartasunaren adierazpide direlakoan dago: Justizia soziala eta pertsonen eskubide-berdintasuna bilatzen

dute, eta herrien kulturarteko elkarrizketaren bidegile dira.

3. artikulua. Funtzioak.

Euskadiko GGKEen Jokabide Kodea esparru duela, Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluaren funtzioak honako hauek dira:

1. Donostiako Udalak garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzaren inguruko gaiei ekiteko planak zuzenduko dituzten lehentasun eta irizpideak proposatzea, kalitatea, eraginkortasuna eta gardentasuna zainduz.

2. Lau urtean behin Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako plan estrategiko bat sustatzea.

3. Lan-urte bakoitzaren hasieran, Batzorde Iraunkorrek proposatuta, Urteko Aktibitateen Programa eta dagokion memoria sustatzea.

4. Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzarako udal proiektu, programa eta neurriak elaboratzerakoan aholku ematea.

5. Deialdi publikoen oinarrietarako nahiz proiektuen hautaketarako irizpideak ezartzerakoan laguntzea eta aholku ematea.

6. Eskatzen badiote, txostena egingo du, garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza funtsak (udal funtsak) nora bideratzeari buruzko erabaki proposamena dagokion organori bidali baino lehen.

7. Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren inguruko gaietan udal jardunbideen urteko ebaluazioa egitea, dagokion memorian txertaturik.

8. Kontseiluaren eskumeneko edozein arloz Donostiako Udalbatzaren Bilkurak eta udal Gobernuaren Organoek eska lezaketzen ezein gairi buruzko irizpenak ematea.

9. Gainerako udal politiken koherentzia sustatzea Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzaren politikaren jarrerarekiko, beste Udal Kontseiluekin harremanak ezarriz.

10. Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzako dinamikak sustatzea Donostiako hirian, Kontseiluaren izaerari darizkion printzipioen arabera betiere.

11. Euskadiko eta Estatuko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntza legeak eta gaia dagokien nazioarteko Organismoetatik eratorritako gomendioak egoki betetzeko neurriak proposatzea.

12. Kontseiluaren baitatik ezarritako beste edozein funtzio, «Izaera» sailaren eta Tokiko Administrazioaren legeen mugapean izanez gero.

Funtziook bete ditzan, Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako udal programa gauzatzeko udal organo ahaldunek hartu behar dituzten akordio edo ebazpen proposamenen berri emango zaio Kontseiluari.

I. TITULUA

KONTSEILUAREN ORGANOAK

4. artikulua. Osaketa.

Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluak honako organo hauek izango ditu:

- a) Kontseiluaren Bilkura.
- b) Lehendakaritza.
- c) Lehendakariordetza
- d) Idazkaritza.
- e) Batzorde Iraunkorra.
- f) Lan-batzordeak.

5. artikulua. Kontseiluaren Bilkura.

Bilkura da Kontseiluaren organo gorena, eta honako hauek hitz eta boto eskubidez osatzen dute:

- * Lehendakariak: Alkateak, edo bere ordezkari hautatu duen Lankidetzako zinegotziak.
- * Lehendakariordetzak: Herritarren elkarte baten ordezkari den kontseiluko kide batek hartuko du, haiek hala proposatuta eta Kontseiluak gehiengoz erabakia hartu ondoren
- * Lankidetzako zinegotzi ordezkariak.
- * Garapenerako lankidetzeta edota hezkuntza proiektuei lotuta dauden Donostiako Udal Erroldan izena emandako GGKE, Fundazio eta irabazteko asmorik gabeko beste erakundeen ordezkari banak.
- * Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Gipuzkoako Ordezkaritzaren ordezkari batek.
- * Udal talde bakoitzeko ordezkari banak.
- * Interesatuen zerrendetan ageri direnen artean zozketa bidez aukeratutako 3 pertsona fisikoek, 27.

Artikuluak dioen moduan.

Eta hitza bai baina botorik ez duten honako hauek:

- * Udalbatzaren Idazkari Nagusiak edo bere ordezkari hautatu duen pertsonak.
- * Lankidetzaren Departamentuko teknikariek.
- * Jorratu beharreko gaian garrantzia duten pertsonak, (Euskal Fundazioa, UPV/EHU eta abarretakoak.)

6. artikulua. Kontseiluaren Bilkuraz.

1. Kontseiluaren Bilkura osatzen dutenek honakoak egin ahal izango dituzte:

- * Bilkurako eztabaidetan parte hartzea.
- * Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzari dagozkion politikei buruzko proposamenak planteatzea.
- * Kontseiluaren Idazkaritzaren bitartez Egunko Ordenan sartutako gaiei buruzko informazio edo dokumentazio zabalagoa eskatzea.
- * Boto eskubidea gauzatzea.
- * Erregu-galderak egitea.
- * Bokalek izateari datzekion ezein funtzio gauzatzea.

2. Kontseiluko bokalek ezin izango dute ordezkari funtziorik bereganatu, Lehendakariari beste inori ez baitagokio, non eta berariaz arauaren bidez edo behar bezala hartutako adostasunez ez baldin bazaie eman.

3. Lehendakariak, Kontseiluaren jardunbide egokia bermatzearen, beharrezko eta apropos deritzon udaleko edo kanpoko laguntza teknikoak eskatu ahal izango du.

7. artikulua. Lehendakariak.

1. Alkatea izango da Kontseiluaren Bilkurako Lehendakaria.

2. Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzari Ordezkaritza bere gain duen zinegotziaren esku utzi ahal izango du Lehendakariak.

8. artikulua. Lehendakariaren funtzioak.

- * Kontseilua ordezkatzeko.
- * Ohiko eta ohiz kanpoko bilkuretara deitzea.
- * Udal teknikariak zein erakunde eta elkarteetako ordezkariak gonbidatzea.
- * Egunko ordena onestea.
- * Bileren nondik norakoak presiditzea eta moderatzea.
- * Herritarren partaidetza bermatzea.
- * Erakunde, elkarte edo herritarren bertan egoteko eskaerak ebatzea.
- * Kontseiluaren ekimenak eta proposamenak Udal Gobernuari helaraztea, tramitatu daitezkeen.
- * Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzari Kontseiluaren eta Udal Gobernu eta Kudeaketa Organoen arteko harremana koordinatzea.
- * Lehendakari izateari datzekion ezein funtzio aurrera eramatea.

9. artikulua. Lehendakariordetza.

1. Lehendakariordetza herritarren elkarte baten ordezkari den kontseiluko kide batek hartuko du.

2. Kontseilua zuzenduko du eta bere gain hartuko ditu funtzioak, lehendakaria egon ezean.

10. artikulua. Idazkaritza.

Kontseiluaren Idazkaritza Udalbatzaren Idazkari Nagusiari dagokio, edo bere ordezkari hautatzen duen pertsonari. Bere funtzioak aurrera eramateko, Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzari Zuzendaritzaren egitura izango du oinarri.

11. artikulua. Idazkaritzaren funtzioak.

- * Bileretara joatea.
- * Lehendakariari Egunko Ordena proposatzea.
- * Bileren akta jasotzea.
- * Deialdiak, egunko ordenak eta Kontseiluak sorraraz lezakeen dokumentazio oro bidaltzea.
- * Kontseiluaren ebazpenak tramitatzea.
- * Jorratzen diren gaien alde legalei buruzko aholku ematea, behar izanez gero dagozkien oinarri juridikoak eskainiz.
- * Idazkari izateari datzekion ezein funtzio aurrera eramatea.

12. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

Batzorde Iraunkorra da Bilkuren arteko organo gorenena. Bera arduratzen da Kontseiluaren eguneroko kudeaketaz eta, Bilkura bildua ez delarik, haren zuzendaritza bere gain hartzen du.

Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra, Bilkurak hautatua, honako hauek osatuko dute:

- * Lehendakariak: Alkateak edo bere ordezkariak.
- * Lehendakariordeak: Kontseiluaren erakunde kideetako baten ordezkariak.
- * Lankidetzako zinegotzi ordezkariak.
- * bokal lek: Udal ordezkariak.
- * 4 bokalek: Kontseiluaren erakunde kideek.
- * bokal lek: Euskadi GGKEen Koordinakundea. Gipuzkoako Delegaritza.

Hitza bai baina botorik ez:

- * Udalbatzaren Idazkariak, edo bere ordezkariak.
- * Lankidetzako Departamenduko teknikariak.
- * Jorratu beharreko gaiaren araberrako ezein pertsona garrantzizkok.

13. artikulua. Batzorde Iraunkorraren funtzioak.

Bilkurak bere esku utzi dituelako, eta Urteko Lan Planaren esparruan, Batzorde Iraunkorrak honako funtzio hauek ditu:

1. Bilkuraren eguneko ordena eta bileren egutegia proposatzea.
2. Lan-urte bakoitzaren hasieran, Urteko Aktibitateen Programa eta haren kudeaketari dagokion Memoria aurkeztea Bilkurari, onets ditzan.
3. Lan-Batzordeak izendatzea eta koordinatzea.
4. Bilkurak eska diezaiokeen ezein txosten ematea, bai eta egoki deritzon neurri eta ebazpen oro hari proposatzea ere.
5. Premia handiko kontuak izanez gero, ohiz kanpoko osoko bilera egin dadin eskatzea lehendakariari.
6. Dagokion Bilkuran, Batzorde Iraunkorrak bere akordio eta ebazpenen berri emango du.
7. Donostiako Udalarekin lan egitea, bai bere ekimenez bai zeinahi udal organo ahaldunek hala eskaturik.
8. Bilkuraren aginduz, beste udal departamenduei Garapenerako lankidetzako eta hezkuntzaren inguruko gaietan beharrezko deritzon ezein proposamen iradokitzea, bere ekintza guztietan diziplinarteko izaera sustatuz.
9. Bilkurak esleitu diezaiokkeen edo Kontseiluaren beste organoei berriaz esleitu ez zaizkien funtzio oro.

14. artikulua. Lan-Batzordeak.

1. Aztertze eta lan egiteko organoak dira Lan-Batzordeak, Batzorde Iraunkorraren menean.
2. Edonola ere, Batzorde Iraunkorreko kide batek koordinaturik egongo dira, eta, gainera, kideen kopuruak, berak erabakitako ordezkarietarik parte hartze prest daudenek osatuko dituzte.
3. Batzorde Iraunkorrak sorraraziko ditu Lan-Batzordeak, ofizioz edo Kontseiluaren Bilkurako kideen heren batek eskaturik.
4. Lan-Batzordeetan elaboratutako konklusio edo proposamenak Kontseiluari helaraziko zaizkio, beharrezko ebazpenak har daitezkeen.

II. TITULUA

ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA

15. artikulua. Aholku Kontseiluaren bilerak.

1. Aholku Kontseilua ohiko izaeraz gutxienez urtean lau aldiz bilduko da.
2. Kontseiluaren osaketa baliagarria izango da Kontseiluko kideen bi herenak bilduta.
3. Ohiko bileretara gutxienez 15 eguneko aurrerapenez deituko dira.
4. Kontzentzuaren alde egingo bada ere, Kontseiluaren ebazpenak bildutako gehiengo soilez hartuko dira.

5. Ohiz kanpoko bileretara gutxienez 15 egun lehenago egingo dira deialdiak, non eta premiazko deialdiak ez baldin badira, 7 egun lehenago deitu ahal izango dira eta.

6. Lehendakariak hala erabakiz gero, edo Kontseiluaren kideen heren batek eskatuz gero, Kontseilua ohiz kanpo bilduko da. Deialdia egin baino lehen, Batzorde Iraunkorrek berretsi beharko du premiaren zergatia.

16. artikulua. Batzorde Iraunkorraren bilerak.

1. Batzorde Iraunkorra ohiko izaeraz gutxienez urtean lau aldiz bilduko da eta, ohiz kanpo, Lehendakari-tzak eta Lehendakariordetzak hala erabakiz gero edo kideen erdiak eskatuz gero, eta osaketa baliagarria izateko Lehendakariak, Idazkariak eta boto eskubideko kideen gutxienez erdiek bildu behar dute.

2. Ebazpenak gehiengoz hartuko dira, kontzentsuaren alde egingo bada ere. Berdinketa gertatuz gero, Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

3. Karguak Bilkuran onetsiko edo, hala bada, baliogabetuko dira, eta iraupena bi urtekoa izango da, epearen bukaeran berraztertu eta luzatu ahal izango dela.

4. Batzorde Iraunkorrek, gai puntual eta zehatzak aurrera eramateko, aldi bateko Lan-Batzordeak sorraraz ditzake.

5. Batzorde Iraunkorrek eskatu ahal izango du jorratu beharreko gaietan adituak eta jakitunak direlako ospea duten pertsonak bileretara bertara daitezzen, hitza bai baina boto eskubiderik gabe betiere. Halako partaidetzak Batzordeko kideen gehiengo sinpleak onetsiak izango dira.

III. TITULUA

KIDE IZAERAREN ESKURATZEA ETA GALTZEA

17. artikulua. Kide berrien gehitzea.

1. Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluaren kide izateko, Erakundeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Irabazteko asmorik gabeak izatea.

b) Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzaren inguruko jarduera eta helburuak bilatzea.

c) Donostiako Udalaren Elkarte Erroldan izena emanda egotea.

d) Azken urtean bere izaerari dagozkion jardunbideak (Garapenerako Lankidetzak edota Hezkuntzakoak) Donostiako hirian edo hiritik burutu izana, (jardunbideok agiriz frogatu beharra dago).

2. Aholku Kontseiluaren partaide izan nahi duten erakundeek Lehendakaritzari zuzendu behar diote eskaera, beharrezko dokumentazioa atxikita.

3. Erakunde eskatzaileek honako dokumentazio hau gehitu beharko diote eskaerari:

a) Ezarritako ereduaren arabera betetako instantzia.

b) Azken urtean burutu dituen Garapenerako Lankidetzak edota Hezkuntzako jardunbideak erakusteko Erakundeak egindako Memoria. Hala izan bada, Donostiako Udalarekin elkarlanean edo haren partaidetzaz burututako jardunbideak adierazi beharko ditu memoriak.

c) Helbidea, kideen kopurua eta zuzendaritzako karguak betetzen dituzten pertsonen izenak ziurtatzeko frogagiriak.

d) Aholku Kontseilurako Erakundearen ordezkariaren zein haren ordezkorearen izendapenaren ebazpena. Adierazitako edozein datu gerora aldatuz gero, hilabeteren buruan Aholku Kontseiluaren Idazkaritzari jakinaraziko zaio.

4. Ezarritako baldintza guztiak betetzen direla behin frogatuta, Batzorde Iraunkorraren proposamenez, Aholku Kontseiluak parte hartzeko eskaerak onetsi egingo ditu.

18. artikulua. Kide izaeraren galtzea.

1. Aholku Kontseiluaren kide izaera galduko dute Erakundeek honelakoak geratuz gero:

a) Beren borondatez.

b) Erakundearen desegitea.

c) Aholku Kontseiluaren partaide izateko eskatutako baldintzetako baten galera.

d) Bere ordezkari guztiek Kontseiluaren Bilkuretara edo Batzorde Iraunkorraren bileretara zuritu gabe huts egiten dutenean, hiru aldiz jarraian edo bost aldiz bakandurik.

e) Kontseiluaren Araudia eta barne-arautegia edo bere gobernu organoen ebazpenak behin eta berriz ez betetzea.

f) Aholku Kontseiluaren printzipio eta helburuen aurkako jokabideak azaltzea edo aktibitate nahiz adierazpideak egitea.

2. Aholku Kontseiluaren kide izateari uzteko ebazpena Bilkuran hartuko da, Batzorde Iraunkorraren proposamenaz, dagokion espedientea -non Erakundeari entzuna izateko aukera eman beharko baitzaio- behin tramitatu eta gero.

AZKEN XEDAPENA

Araudi honetan aurreikusitako guztian, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoan eta Herritarren Partaidetzari buruzko Arau Organikoan xedatutakoa kontuan izango da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Udal Zerbitzuek, Aholku Kontseiluak Lehendakaritzaren edo Idazkaritzaren bitartez eskatzen ahal dien informazioa, gehienez ere 30 eguneko epean erantzun beharko dute.